BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5162

HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2015eko azaroaren 25ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, iragartzen da hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko deialdia (Udalaguntza-2015)».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluak dioenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada.

2015eko azaroaren 25eko EHAAn (228. zenbakia) argitaratu zen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko azaroaren 25eko Agindua. Agindu horren bidez iragartzen da hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko deialdia (Udalaguntza-2015). Aurreko paragrafoan adierazitako moduko hutsak atzeman direnez agindu horretan, zuzendu egiten dira:

2015/5104 (9/2) orrialdeko 1. artikuluko, 2. puntuaren b) idatzi-zatiak honela dio:

«(...) Abenduaren 5eko 1537/2003 Errege Dekretua betetzeko obrak; errege-dekretu horren bidez, araubide orokorreko irakaskuntza ematen duten zentroen gutxieneko baldintzak ezartzen dira. (...)».

Eta honela esan behar du:

«(...) Otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua betetzeko helburua dutenak; errege-dekretu horren bidez ezartzen dira haur hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza ematen duten zentroen gutxieneko baldintzak (...)?».

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik izango ditu ondorioak.